BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

4957

108/2026 EBAZPENA, azaroaren 12koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekin 2022ko urriaren 13an sinatutako hitzarmenaren luzapena, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atalak funtziona dezan Eibarko Hezkuntza Esparruaren barruan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatu den hitzarmenaren luzapena sinatu du, eta, behar bezalako publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekin 2022ko urriaren 13an sinatutako hitzarmenaren luzapena, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Eibarko atalak funtziona dezan Eibarko Hezkuntza Esparruaren barruan. Hitzarmen luzapen hori ebazpen honen eranskin gisa agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 12a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN AZAROAREN 12KO 108/2026 EBAZPENARENA

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAK ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK EIBARKO HEZKUNTZA ESPARRUAN GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLAREN FUNTZIONAMENDURAKO SINATUTAKO HITZARMENA LUZATZEKO AKORDIOA

BILDU DIRA:

Alde batetik, Begoña Pedrosa Lobato andrea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburua.

Eta bestetik, Juana Goizueta Vértiz andrea, Euskal Herriko Unibertsitateko Gipuzkoako Campuseko errektoreordea.

Ordezkatzen dituzten erakundeen izenean eta haiek ordezkatuz esku hartzen dute, indarrean dagoen araudiak ematen dizkien ahalmenak erabiliz, eta akordio hau formalizatzeko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE:

I.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak hitzarmen bat sinatu zuten 2022ko urriaren 13an, Eibarko Hezkuntza esparruan, Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren Eibarko Atalaren funtzionamendurako.

II.– Hitzarmen horren indarraldia laster amaituko dela, eta bi erakundeek komenigarritzat jotzen dutela 2027ko abuztuaren 31ra arte luzatzea, hitzarmenean jasotako jardueren, zerbitzuen eta konpromisoen jarraipena bermatzeko.

III.– Hitzarmen horren bosgarren klausulak aurreikusten duenez, «aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea, beste lau urterako gehienez, edo hura azkentzea».

IV.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Euskal Herriko Unibertsitatea lanean ari dira Eibar Uni Hezkuntza Gunea osatzen duten baliabideak, instalazioak eta azpiegiturak antolatzeko, erabiltzeko, kudeatzeko eta finantzatzeko etorkizuneko esparrua definitzeko, eta, besteak beste, Gorbeia unibertsitate-egoitzaren etorkizuneko kudeaketa sartzen dute, Hezkuntza Sailak 2026-2027 ikasturtearen amaieran egoitza horren kudeaketa bertan behera uztea aurreikusten baitu.

V.– Ondorioz, bi alderdiek komenigarritzat jotzen dute luzapen honen indarraldia aprobetxatzea etorkizuneko esparru horren definizioan aurrera egiteko eta, hala badagokio, organo eta erakunde eskudunek tresna juridiko egokien bidez hartu beharko dituzten erabakiak hartzeko.

VI.– Lan horiek amaitu bitartean, bidezkoa da gaur egun dagoen hitzarmenaren indarraldiari aldi baterako eustea, baldintza berberetan.

Horregatik guztiagatik, alderdiek luzapen hau sinatzea erabaki dute, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmenaren luzapena.

Alderdiek adostu dute 2022ko urriaren 13an sinatutako hitzarmenaren indarraldia 2027ko abuztuaren 31ra arte luzatzea, eta aldi horretan bertan aurreikusitako betebeharrei, baldintza ekonomikoei eta kudeaketa-baldintzei eustea.

Bigarrena.– Izaera iragankorra.

Luzapen honen helburua da hitzarmenak babesten dituen zerbitzuen eta jardueren jarraipena bermatzea, indarrean dagoen bitartean, eta akordio honen azalpen-zatian aipatzen diren erakundeen azterketa- eta hausnarketa-jarduerekin jarraitu ahal izatea.

Hirugarrena.– Azkentzea.

Lehenengo klausulan aurreikusitako luzapen-epea igarotakoan, hitzarmena azkendu egingo da, eta ezin izango da beste luzapenik egin.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek elektronikoki sinatzen dute akordio hau, dagozkien sinaduretan adierazitako egunean.

Egoitza elektronikoa, 2026ko urriaren 16a.